


MARKINA-XEMEIN



UDALAREN EGUNGO
EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

AURKIBIDEA

ONARRIZKO DATUAK	3
Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua	
Biztanleriaren egitura, adinaren arabera	
Biztanleria, jatorriaren arabera	
Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera	
Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera	
EUSKARA ONDORENGOETARATZE A.....	7
Familia bidezko jarraipena	
Hizkuntza-bilakaeraren tipologia	
Hizkuntza bilakaeraren tipologia, adinaren arabera	
Etxeko hizkuntzaren erabilera	
Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia	
Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera	
Irakaskuntza	
Irakaskuntza ez unibertsitarioaren ikastetxeak; sarea eta ikasleen kopurua, ereduka	
Hizkuntza Normalkuntzako programak	
Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera (1983-84/2001-02)	
Haur Hezkuntzaren bilakaera (1983-84/2001-02)	
Irakaskuntza ez unibertsitaria 2001-02, irakasmailaren arabera	
Euskalduntze-alfabetatzea	
Euskaltegiak: sare-mota, ikasle kopurua	
Euskaltegietako matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera	
EUSKARAREN ERABILERA.....	16
Administrazioa	
Udalbatzaren osaera: alderdi politikoaren ordezkartza	
Euskara Zerbitzua	
Udalaren erabilera-plana	
Derrigortasun-indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila	
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak	
Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera	
Lan mundua	
Biztanleria, lan sektorearen arabera	
Erabilera-plana duten udaleko enpresak	
EUSKARAREN ELIKADURA.....	19
Komunikabideak	
Euskara-aurrekontuak (1999ko datuak).....	19
ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak.....	20
ONDORIO NAGUSIAK	21
ERANSKINA: GLOSARIOA.....	28

OINARRIZKO DATUAK

Kokapen geografikoa eta biztanleen kopurua

Biztanle-kopurua: 4.708

Eskualdea: Lea-Artibai

Lurraldea: Bizkaia



Markina-Ondarroa
Markina-Ondarroa



Markina-Xemein, Lea-Artibai eskualdean kokatuta dago. Lea-Artibai eskualdea 11 udalerri¹ osatzen dute. Ondarroa da 10.000 biztanle baino gehiago duen eskualdeko udalerririk bakarra. 2001ko erroldaren arabera, Markina-Xemeinen 4.708 lagun bizi dira. 1996 urtetik 2001 urtera biztanle-kopuruak behera egin du eskualdean (%5,19) eta baita Markina-Xemeinen ere (5,9%).

Biztanleriaren egitura, adinaren arabera (2001)

Bizkaia	1.122.637	506,3	189.277	16,6	738.778	64,8	210.945	18,5
Lea-Artibai	26.095	128,2	4.403	16,5	16.757	62,8	5.496	20,6
Markina-Xemein	4.708	74,0	801	17	2.918	61,9	994	21,1

¹ Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ipazter, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi Gerrickaitz eta Ondarroa.


Biztanleria, jatorriaren arabera (2001)

Bizkaia	1.122.637	%46,98	%28,49	%23,00
Lea-Artibai	26.095	%65,19	%23,05	%9,54
Markina-Xemein	4.708	%64,33	%26,62	%8,94

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

Markina-Xemeingo hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira (%89,5). Erdaldun elebakarrak biztanleen %5,8 dira eta elebidun hartzaileak, berriz, %4,8. 1981etik 1996ra euskaldunen portzentajea 4,6 puntu hazi da. Hamabost urte hauetan erdaldun elebakarren eta elebidun hartzaileen portzentajeek behera egin dute (3 eta 1,5 puntu, hurrenez hurren).

Hizkuntza-gaitasuna (MARKINA-XEMEIN) Competencia lingüística (MARKINA-XEMEIN)




Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

Euskaldunen proportzioa nagusi da adin-tarte guztietan. Euskaldunen portzentajerik handiena gazteen artekoa da. Aipatzekoa da 59 adin-tartean euskaldunak %99,53 izatea. Erdaldun elebakarren portzentajerik handienak 55-59 eta 60-64 adin-tartekoak dira; hamar lagunetik bat, erdaldun elebakarra da.


Hizkuntza-gaitasuna 1996, adinaren arabera (MARKINA-XEMEIN)

Competencia lingüística 1996, según la edad (MARKINA-XEMEIN)



Euskaldunen bilakaera 1981-1996, adinaren arabera (MARKINA-XEMEIN)

Evolución de los euskaldunes 1981-1996, según la edad (MARKINA-XEMEIN)



EUSKARA ONDORENGOETARATZEA


FAMILIA BIDEZKO JARRAIPENA

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia

Markina-Xemeinen hizkuntza-bilakaeraren tipologiari dagokionez, multzorik handiena euskaldun zaharrena da; biztanleen %82,19 euskaldun zaharrak dira, hau da, etxean jaso dute euskara eta gorde egin dute. Euskaldun berriak %4,9 dira. Euskaldun zaharren ostean, erdaldun zaharren multzoa da handiena. Hala ere, biztanleriaren %5,54 bakarrik da erdaldun zaharra.

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 1996 (MARKINA-XEMEIN)

Tipología de movilidad lingüística 1996 (MARKINA-XEMEIN)




Hizkuntza-bilakaeraren tipologia, adinaren arabera

Euskaldun zaharrak nagusi dira adin guztietan (hamar lagunetik zortzi euskaldun zaharrak dira). Euskaldun berrien portzentajerik handienak 29 urtetik beherako gazteen artekoak dira. 5-9 eta 10-14 adin-tarteetan %12 inguru euskaldun berriak dira. Nabarmentzekoa da 14 urtetik behera ia ez izatea erdaldun zaharrak (%0,63 inguru).

Hizkuntza-bilakaeraren tipologia 1996, adinaren arabera (MARKINA-XEMEIN)

Tipología de movilidad lingüística 1996, según la edad (MARKINA-XEMEIN)



Etxeko hizkuntzaren erabilera (2001)


Hurrengo taulan ikusiko dugunez, Markina-Xemeingo biztanle gehienek euskara erabiltzen dute etxean; ondoren, euskara eta gaztelania, biak.

66,53	17,91	14,08	1,49

Etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia

Etxeko hizkuntzaren erabilerari dagokionez, euskaldun zaharrek euskara erabiltzen dute nagusiki (%81,7). Jatorrizko elebidunek euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte nagusiki (%63,6). Euskaldun berriek, aldiz, nagusiki gaztelania erabiltzen dute (%65,4). Partzialki euskaldun berriek ere, gaztelaniaz hitz egiten dute nagusiki (%79,9). Azkenik, partzialki erdaldunduek, batez ere euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte (60,5).

Etxeko erabileraren tipologia 1996 (MARKINA-XEMEIN)
Tipología de lengua de uso en casa 1996 (MARKINA-XEMEIN)




Etxeko hizkuntza, euskaldunen dentsitatearen arabera

Biztanleriaren hiru laurden (%76,87) etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik gora duten familietan bizi dira. Hauek nagusiki euskara erabiltzen dute (%83,55). Etxeko euskaldunen dentsitatea %60-80ra jaisten denean euskararen erabilera ere jaitsi egiten da (%31,21) eta nagusiki euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituzte nagusiki. Dentsitatea txikiagoa denean euskararen erabilerak behera egiten du nabarmen. Izan ere, etxeko euskaldunak familiako erdia baino gutxiago direnean, etxean ia ez da euskararik erabiltzen.

Etxeko erabilera 1996, familiako euskaldunen dentsitatearen arabera (MARKINA-XEMEIN)

Lengua de uso en casa 1996, según la densidad de euskaldunes en la familia



IRAKASKUNTZA

Markina-Xemeinen lau ikastetxe daude, bi publiko eta bi pribatu. Ikasle gehienak (%79,01) ikastetxe pribatuetara doaz. Ikasle gehien duen ikastetxea (ikasleen %46,8) Lea Artibai BHIP da.

Hizkuntza-ereduak kontutan hartzen baditugu, D eredia nagusi da Markina-Xemeingo ikastetxeetan (%76,72). Ikastetxe publikoetan ikasle guztiak D eredian matrikulatu dira. Ikastetxe pribatuetan, lau ikasle hiru D eredia aukeratu dute (%70,53) eta gainontzekoek, berriz, B eredia.

Ikastetxeka aztertuz gero, Lea Artibai ikastetxean B eta D ereduak daude eta bi ereduak parekatu izan arren D eredian matrikulatu dira ikasle gehienak (%50,25). Gainontzeko hiru ikastetxeetan D eredia eredu bakarra da.

IES MARKINA BHI	PUBLIKOA	120	% 10,70	0	0	100
CEP BEKOBENTA LHI	PUBLIKOA	146	%13,01	0	0	100
PUBLIKOA GUZTIRA		266	%23,71	0	0	100
CPES LEA ARTIBAI BHIP	PRIBATUA	509	%45,37	0	52,26	47,74
CPEIPS BERA-KRUZ IKASTOLA HLBHIP	PRIBATUA	347	%30,93	0	0	100
PRIBATUA GUZTIRA		856	%76,30	0	29,47	70,53
MARKINA-XEMEIN GUZTIRA		1122	%100	0	23,28	76,72

OHARRA: Lea-Artibai ikastetxean esan digutunaren arabera, nahiz eta B eredian matrikulatuta egon, gelaren Hizkuntza euren arteko harremanetan euskera da. Ziklo horretako materiala euskeraz ez dagoenez, materiala erderaz erabiltzen behartuta daude. Euren helburuetariko bat, material hori euskaratzen joatea da.

Hizkuntza Normalkuntzako programak

Hiru ikastetxetan Hizkuntza Normalkuntzako programa abian dute. Ikastetxe publikoek irakasle bana liberaturik dute astean zenbait orduz. Ikastetxe pribatuak, berriz, 2.639,3 € jaso ditu.

CEP BEKOBENTA LHI 6 ordu


IES MARKINA BHI 3 ordu

CPES LEA ARTIBAI BHIP 394.220 pta. (2.369,3 €)

Irakaskuntza ez unibertsitarioaren bilakaera 1983-84/2001-02


Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenean A, B eta D ereduak zeuden eta B eredu hautatuena zen. 1985-86 ikasturtetik aurrera D eredu nagusi da irakaskuntza ez unibertsitarioan. 2000-01 ikasturtetik aurrera A eredurik ez dago.

Irakaskuntza ez unibertsitaria (MARKINA-XEMEIN) Enseñanza no universitaria (MARKINA-XEMEIN)



Haur Hezkuntzaren bilakaera, 1983-84/2001-02


Hezkuntzan hizkuntza-ereduak ezarri zirenetik D ereduak erabat nagusi da. 1992-93 ikasturtetik aurrera D ereduak eredu bakarra da Markina-Xemeingo Haur Hezkuntzan.



Irakaskuntza ez unibertsitaria 2001-02, irakasmilaren arabera

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta BALen, D eredua, eredu bakarra da. Lanbide Heziketan, berriz, B eta D ereduak daude eta lau ikasletik hiru B ereduan matrikulatu dira.

2001-02 IKASTURTEA (MARKINA-XEMEIN) CURSO 2001-02 (MARKINA-XEMEIN)



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

HABEK emandako informazioaren arabera, euskara hobetzeko edo ikasteko Lea Artibaiko AEK euskaltegia dago. 2001-02 ikasturtean 38 ikasle aritu dira bertan klaseak hartzen.


Euskaltegiak 2001-2002 ikasturtea (Markina-Xemein)			
Euskaltegia	Mota	Sarea	Ikasleak
LEA ARTIBAiko AEK	Homologatua	AEK	38

Euskalduntze-alfabetatzearen eta bermatrikulazioaren bilakaera, ikasmailaren arabera (Markina-Xemein)										
	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa	GUZTIRA	101-106	107-109	110-112	Alfa
1986-87	33	42,42	30,30	0,00	27,27	33,33	50,00	10,00		33,33
1987-88	42	33,33	0,00	0,00	66,67	2,38	0,00			3,57
1988-89	8	0,00	0,00	0,00	100,00	12,50				12,50
1989-90	19	47,37	0,00	0,00	52,63	26,32	55,56			0,00
1990-91	22	54,55	45,45	0,00	0,00	27,27	33,33	20,00		
1991-92	33	27,27	0,00	0,00	72,73	18,18	44,44			8,33
1992-93	22	40,91	0,00	0,00	59,09	31,82	55,56			15,38
1993-94	25	44,00	0,00	0,00	56,00	20,00	9,09			28,57
1994-95	26	30,77	0,00	0,00	69,23	30,77	75,00			11,11
1995-96	18	44,44	0,00	0,00	55,56	16,67	37,50			0,00
1996-97	16	43,75	0,00	0,00	56,25	12,50	0,00			22,22
1997-98	99	4,04	0,00	51,52	44,44	31,31	50,00		37,25	22,73
1998-99	71	22,54	0,00	46,48	30,99	30,99	25,00		18,18	54,55
1999-00	50	20,00	0,00	26,00	54,00	14,00	0,00		0,00	25,93
2000-01	26	0,00	0,00	53,85	46,15	42,31			14,29	75,00
2001-02	38	18,42	0,00	50,00	31,58					

Matrikulazioaren bilakaerari dagokionez, gorabeherak izan dira. Hasierako ikasturteetan, alfabetatze mailatan eta hasierako mailatan matrikulatu dira ikasle gehienak. 1997-98 ikasturteetik aurrera, berriz, goi mailatan eta alfabetatze mailatan matrikulatu dira ikasle gehienak.

Euskaltegiak matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera Evolución de la matriculación y la rematriculación de los euskaltegis

MARKINA-XEMEIN



Ikasturteak / Cursos






EUSKARAREN ERABILERA

ADMINISTRAZIOA

Udalbatzaren osara: alderdi politikoek ordezkaritza

Alkatea eta 10 zinegotzi.

Alkatea: JAVIER ALBERDI IBAIBARRIAGA (EAJ-PNV)

	Alderdi	Botoak	Botoen %	Eserlekuak
	EAJ-PNV	1.563	71,24	9
	EA	448	20,42	2
	EB-IU	76	3,46	0
	PP	66	3,01	0
	PSE-EE (PSOE)	41	1,87	0
	OTROS	0	0,00	0

Euskara Zerbitzua

Markina-Xemeingo Euskara Zerbitzuan langile bakarra dago: administrari laguntzaile-itzultzailea.

Udalaren erabilera-plana

Bideragarritasun-txostena onartua dute. Momentu honetan, erabilera-planaren proposamena lantzen ari dira.

Derrigortasun-indizea eta hizkuntza-eskakizunen betetze-maila

Markina-Xemeingo Udalaren derrigortasun-indizea %92,44 da. Udalak lanpostuen %91,31ri ezarri die derrigortasuna. Derrigortasun-data duten langileen artean, %87,5ek egiaztatu dute hizkuntza-eskakizuna.

24	23	95,83	23	95,83	1	4,17	0	0	1	4,17	0	0	0	0	0	0

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

Udalaren web gune ofizialaren hizkuntza-egoera www.markina-xemein.com

Sarrerako orrian, udalerriko hainbat argazki erakusten dira eta bertatik euskaraz idatzirik dagoen Alkatearen agurra irakurtzen den orrira sartzen da. Orrialde horretan hizkuntza aukeratu behar da (euskara edo gaztelania). Euskarazko bertsioa erabat euskaraz landuta dago. **Orri hau desagertu egingo da. Orri berria egin behar da.**

Página Oficial de Markina-Xemein -Markina-Xemeingo Orrialde Ofiziala - - Microsoft Internet Explorer

Archivo Edición Ver Favoritos Herramientas Ayuda

Atrás Adelante Detener Actualizar Inicio Búsqueda Favoritos Historial Correo Imprimir

Dirección <http://www.markina-xemein.com/index1.htm> Ir Vínculos >>

 **Markina - Xemein** 

 **Euskera**  **Castellano**

 Ongi etorri Markina-Xemeingo orrialde honetara. Hemen, gure historia, ingurune ekologikoa, argazkiak eta abar ikusi ahal izango dituzu. Aurkezten dizugun web orrialde hau erabilgarria izango zaizu, bai udal zerbitzuak ezagutzeko zein gure hiriko gertakizunik aipagarrienetaz jakitun egoteko.

Markina-Xemeingo Alkatea naizen aldetik gauza bat bakarrik gehitu nahi nuke: egin iezaiguzu bisita, gure paisaia paregabea eta gure historia zein kulturaren adierazgarri garrantzitsuenak ezagutzeko.



(Quedan 1 elemento) Descargando imagen <http://gigs.infase.es/cgi-bin/hit.cgi?user=117620&referer=http://www.marki...> Internet

LAN MUNDUA

Biztanleria, lan-sektorearen arabera (1996)

Markina-Xemeinen, gehienek (%43,52) zerbitzuetan egiten dute lan. Puntu bakarreko aldearekin, industrian dihardutenak %42,30 dira. Eraikuntzan lan egiten dutenak %7,67 dira eta nekazaritzan dihardutenak, berriz, %6,51.

Autonomia Erkidegoarekin, Bizkaiko lurraldearekin eta Markina-Ondarroa eskualdearekin alderatuz gero industrian diharduteneen portzentajea dezente igotzen da. Autonomia Erkidegoan %31,84 industrian aritzen dira, Bizkaian %29,35 eta Markina-Ondarroan %31,40.

EAE	689.100	%2,47	%31,84	%6,99	%58,70
Bizkaia	353.792	%2,04	%29,35	%7,15	%61,45
Lea-Artibai	9.347	%19,43	%31,40	%6,34	%42,83
Markina-Xemein	1.643	%6,51	%42,30	%7,67	%43,52

Erabilera-plana duten udaleko enpresak

Gaur egun, nahiz eta enpresak Etxebarrin egon Markina-Xemeingo gehiengoak hurrengo enpresetan lan egiten du eta hauek erabilera-plana dute. EIKA, S.COOP., J.L.FRENCH ANSOLA., ARRASATE S.COOP.

EUSKARAREN ELIKADURA

KOMUNIKABIDEAK

Sei hilabetetik behin, Garaian aldizkaria argitaratzen du hainbat herritar osatutako talde batek. 48 orrialdez osatutako aldizkaria euskaraz eta gaztelaniaz idazten dute, beti ere elkarrizketatuaren eta artikulua idazten duenaren arabera. Arduradunen esanetan, euskararen erabilera %70 ingurukoa da. 400 aleko tirada egiten dute eta liburudendetan saltzen dute 2,5 Eurotan. Markina-Xemeingo Udalak defizita bere gain hartzen du.

EUSKARAREN AURREKONTUAK (2002-2003 datuak)

Euskararen aurrekontua 2002 urterako 20.133 eurotakoa izan zen. Euskara Batzordea (AEK,GURE IRAKASKUNTZA,BEKOBENTA E.P.,(Guraso Elkarte eta Zuzendaritza), BERA-KURUTZ IKASTETXEA (Guraso Elkarte eta Zuzendaritza), GARAIAN ALDIZKARIA, HERRI ALDIZKARIA, eta 3 ordezkari politikogatik osotua dago.

2003 urterako aurrekontua 26.115 eurotakoa da. 2003ko ekainean ospatutako Hauteskundeak eta gero Euskara Batzordea desegin egin da, eta beraz, berria sortu beharko da.

ONDORIOAK: indarguneak eta ahuleziak

INDARGUNEAK


- Markina-Xemeinen euskaldunen kopurua altua da, hamar lagunetik bederatzia euskaldunak dira (%89,5).
- 1981etik 1996ra, euskaldunen portzentajea 4,6 puntu hazi da.
- Biztanle gehienak euskaldun zaharrak dira (%82,19).
- 19 urtetik beherako adin-tarteetan ia ez dago erdaldun zaharrik.
- Markina-Xemeingo lau lagunetik hiru, euskaldunen dentsitatea %80tik gorako etxeetan bizi dira eta euskara erabiltzen dute nagusiki (%83,55).
- Irakaskuntza: Lanbide Heziketan izan ezik, D eredia, eredu bakarra da.

AHULEZIAK

- Etxeko euskaldunen dentsitatea %80tik beherakoa denean, euskara hutsez oso gutxi hitz egiten dute.
- Gaur egun, ez dago enpresarik erabilera-planik duenik.

ONDORIO NAGUSIAK

Markina-Xemein herri euskalduna da; hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira (%89,5). Markina-Xemein udalerria Lea-Artibai eskualdean kokatuta dago. Lea-Artibai eskualdea EAEko eskualderik euskaldunena da. Bertan bizi diren biztanleen %87,8 euskaldunak dira. Datu hori kontuan hartzekoa da, izan ere, euskara-gaitasunak eta gune soziolinguistikoak euskararen erabilerarengan erabateko eragina baitute.



1981. urtetik 1996. urtera biztanle-kopuruak behera egin du eskualdean (%5,2) eta baita Markina-Xemeinen ere (%6).

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertuz gero, euskaldunen proportzioa nagusi da adin guztietan. Gazteen artean euskaldunen portzentajeak gora egin du. Aipatzekoa da 5 eta 19 urte bitartean erdaldun elebakarren portzentajea %1,5era ez dela heltzen.

Euskaldun zaharrak, hau da, euskara etxean jaso dutenak eta gorde egin dutenak, gehiengoa dira (%82,19).

Datu horiek eskutan ditugula, gogora ekarri nahiko genuke EBPNk biztanleen %80k edo gehiagok euskaraz hitz egiten duten horrelako gune euskaldunen inguruan esaten duena:

“eutsi ez ezik indartu egin behar da eskolan, gizarteko zerbitzuetan, udal- eta lurralde-mailan, enpresetan eta merkataritzan herri-erakundeek euskarari ematen dioten babesa”.

Hortaz, Markina-Xemeinen datozen urteotarako erronkarik nagusia, euskararen erabilera esparru guztietara hedatzea eta bermatzea izango da. Izan ere, euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza da, hurrengo urteotan egin beharreko ahalegin garrantzitsuena. Batez ere, Markina-Xemeinen bezala euskarak bizi-indar osoa edo

ohargarria izanik, osasun-, hezkuntza-, kirol-, aisia- eta abarreko zerbitzuak euskaraz (elebietan, gutxienik) eskaintzea izango da helburu nagusia.

Euskararen ondorengoetaratzea

Markina-Xemeingo euskaldun gehienek etxean jaso dute euskara. Horri eutsi beharra dago, horixe baita euskara eskuratzeko era naturala, transmisioa ziurtatzeko biderik eraginkorrena eta erabilera ziurtatzeko modurik ziurrena.

Hori dela eta, familiaren geroratzearen inguruko esparruan, ona litzateke familia bidezko jarraipena indartzeari begirako ahaleginak egitea. Horren harira, urte anitzeko lan-programa eratzea komenigarria litzateke, kontuan izanik, sentsibilizazioa, eskolaratzea eta ekintza osagarriak, hala nola:

- Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko
- Ezkondu edo jaunartzea egin behar dutenen gonbidapenak edota oroimenterkartelak egiten duten enpresei laguntza eskaini, euskararen erabilera egokia bermatzeko
- **Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegia zabaldu zuten Bera-Kurutx Ikastetxean.**

Etxeke erabilerari dagokionez, Markina-Xemeingo bizilagunek, gehienbat euskaldun-zaharrak izanik, nagusiki euskaraz hitz egiten dute (%81,7). Horrekin batera, lau lagunetik hiru etxeke euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa den familietan bizi dira, eta kasu horietan, gehienbat euskara erabiltzen dute etxean (%83,55).

Etxeke euskaldunen dentsitatea %80tik jaisten denean, euskararen erabilerak nabarmen egiten du behera. Etxean eta familia giroan, euskararen erabilera indartzeko, hona hemen proposatutako ekintza batzuk:

- Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantua...)
- Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa...)
- Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak
- Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak
- Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini

Irakaskuntzari dagokionez, Markina-Xemeinen lau ikastetxe daude. Hiru ikastetxetan D ereduak bakarrik ematen da, beste eredurik ez dago eta gainontzeko ikastetxean B eta D ereduak daude. 2001-02 ikasturtean, lau ikasletik hiru, D ereduan matrikulatu dira.

Hizkuntza Normalkuntzako Programa abian duten hiru ikastetxe daude eta horretarako Hezkuntza Sailaren laguntza jasotzen dute. Hona hemen, irakaskuntzaren esparruan euskara indartzeko proposatzen ditugun zenbait ekintza:

- Ikastetxeen errotulazioa era egokian jartzeko laguntza
- Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini
- "Euskara Zine Aretoetara" programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)
- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra,...) euskara erabiltzeko laguntzak eskaini
- Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaini
- Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta bestelako erakundeek (Europako Batzordeak, Europako Kontseiluak,...) hizkuntzak sustatzeko kudeatzen dituzten programen eta dirulaguntzen berri eman
- Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea
- Euskalgintzako taldeak bilduko dituen egiturak antolatu eta martxan jarri
- Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Batzordean ikastetxearen presentzia bermatzea
- Irakaskuntza sisteman sartzeaz dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza zehatzak gauzatu (gutunak, hitzaldiak,...) irakaskuntza eredu desberdinen helburuak azalduz.

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten helduentzat Lea Artibaiko AEK dago. Euskara ikasten ari direnen artean komenigarria litzateke harreman-sare euskaldunak sustatzea, hots, euskaraz egiteko aukera estrukturalak bultzatzeko egitasmoak indartzea. Horretarako, ikasleei jarduera osagarriak eskaini dakizkieke ohiko eskolez aparte: euskara txokoak, mintza praktika egiteko guneak...

Euskalduntze-alfabetatzean eragiteko proposatzen diren zenbait ekintza:

- Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaini
- Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
- Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzera motibatzea
- Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu
- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
- Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleei euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak

Euskararen erabilera

Euskaldunen portzentajeari begiratuta, euskaldunen presentzia nabarmena denez, erabilera eta familiaren bidezko transmisioa jorra daitezke, batik bat. Ia esparru guztietan (aisia, kirola, erlijioa, komunikabideak, kurgintza...) eragin daiteke, dezenteko intentsitatez.

Euskara erabiltzeko esparruak bermatzeari begira lan egin daiteke, eta ona litzateke Udalaren gidaritzapean, Euskara Batzordearen bitartez, aisia, kirola, katekesia nahiz kurgintza esparruetan euskararen presentzia bermatzea. Ekintza horiek dibertsifikatu beharko lirateke, adin tarte ezberdinetako euskaldunengana iristeko.

Aisialdia eta kirola direla eta, horretan diharduten taldeen eta elkarten jarduerak koordinatzeko modua egin dezake Udalak. Euskarazko ekintzen aldirokoasuna bermatzeaz gain, esparru horietan adin-tarte eta interes ezberdinei erantzuteko ahalegina egin dezake, eta Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan euskarazko saioak eskaini. Esparru horietan denetan haur eta gazteentzako eskaintzari erreparatu beharko litzaioke, bereziki. Besteak beste, haientzako dauden euskarazko produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa helarazi daiteke, eta horretarako, egun eskueran dauden jokoan, liburuak, komikien, bideoen edota teknologia berrietan oinarritutako produktuen katalogoa osa daiteke. Horrela, euskarazko produktuen eta zerbitzuen kontsumoa areagotuko litzateke. Ekintza hauetaz gain, beste ekintza batzuk ere proposatzen ditugu aisia eta kirol esparruetan euskara indartzeko:

- Aisialdiko elkarten barne funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzea lagundu.
- Begirale-eskolek hezitzaileentzat eta begiraleentzat antolatzen dituzten ikastaroetan euskara bermatu.
- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu.
- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu.
- Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu.
- Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu.
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.
- Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin.
- Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskarazko taldeak osatu daitezkeen ikastetxe eta kirol taldeekin elkarlanean aritu.
- Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Federazioen eta kirol taldeen euskararen normalizaziorako barne plangintzak egiteko laguntza eskaini.

Teknologia berriak ezin albo batera utzi, eta komenigarria da esparru hori gogoan izatea. Udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza tekniko eta diruzkoa eskaini dezake Udalak. Horren harira, Udalak berak eredu izan beharko luke eta bere web orrian euskararen erabilera nabarmendu, orain egiten ari den modura. Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini ditzake

Udalak eta euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean, batez ere, gazteen artean, beraiek baitira, produktu horien erabiltzailerik sutsuenak.

Bestalde, administrazioari dagokionez, Udalak bideragarritasun-txostena onartu du, baina oraindik ez du bideratu erabilera-planaren proposamena.

Hizkuntza-eskakizunen betetze-maila areagotze aldera lanean segi behar du Udalak. Gaur egun %87,5ek egiaztatu dute dagokien hizkuntza-eskakizuna. Bereziki, izendatutako atal elebidunetan lan-hizkuntza euskara izan dadin urratsak ematea garrantzizkoa da. Administrazioari dagokionez ondoko ekintzak eraman daitezke aurrera:

- Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu.
- Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera normalizatzailearen beharrak definitu, HPSrekin batera.
- Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarterekin batera.
- Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

Euskara-plana aurrera eraman beharrekoa izanik, enpresa munduan hainbat ekintza proposatzen dira:

- Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko laguntza eskaini.
- Arloko elkarrekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin.
- Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu.
- Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin.
- Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza teknikoa edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorriz.
- Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri.
- Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin.
- Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini
- Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak,..)
- Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi.

Euskararen elikadura

Gaur egun komunikabideek duten garrantzia kontutan harturik, komunikabideetan ere bada ekintzarik aurrera eramateko:

- Udalak herri edo eskualde mailako komunikabideetan tokian tokiko euskalkiaren erabilera bultzatzea.
- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu.

- Eskualdean diharduten komunikabideen arteko elkarlana eta truke-lerroak eratzea sustatu.
- Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea.

Kulturgintzaren arloan, bestalde, eskualde mailako kultur zirkuituak antola daitezke euskarazko kultur ekoizpenak herritarrengana iritsi daitezen aldiro-aldi. Herri nahiko txikia izanik, hau izan daiteke kultur ekoizpenak herriratzeko modurik errazena. Ona litzateke kultur ekintza hauetara partzialki euskaldun berriak (biztanleen %3,62) erakartzea. Euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten arren, ondo ulertzen dute euskara eta, hori dela eta, euskarazko ekimenetara erakartzeko ahalegina egin behar da. Beste zenbait ekintza ere proposatzen ditugu:

- Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea.
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu.
- Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabiltzan taldeen esku jarri.
- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.
- Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkakotasuna bermatzeari begira.

Beharrezkoa litzateke, azkenik, corpus plangintza alorrean, toponimoak eta seinalizazioa normalizatzea eta zabaltzea; horretarako, hizkuntza-ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntzak eman ditzake Udalak. Halaber, ahozko euskal produkzioaren lekukotasuna gordetzearren, laguntzak eskaini ditzake Udalak bilketa eta ikerketa lanak egiteko, beti ere, Euskaltzaindiaren arauak eta metodologia errespetatuz. Honez gain, merkatal-guneetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetan) euskararen presentzia txukundu eta areagotzeko pausuak eman daitezke.

EUSKARAREN AURREKONTUA

Euskararen aurrekontua 2002 urterako 20.133 eurotakoa izan zen. Euskara Batzordea (AEK,GURE IRAKASKUNTZA,BEKOBENTA E.P.,(Guraso Elkarte eta Zuzendaritza), BERA-KURUTZ IKASTETXEA (Guraso Elkarte eta Zuzendaritza), GARAIAN ALDIZKARIA, HERRI ALDIZKARIA, eta 3 ordezkari politikogatik osotua dago. 2002 urterako antolatutako ekintzen artean hauexek daude.

- Markinako euskerie indartzeko proiektua.
- Euskal dantza ikastaroa.
- Ipuin lehiaketa.
- Kantu eta ipuin bilduma.
- Hitzaldia, antzerkia.
- Oskorri edo antzekoaren ikuskizuna.
- Mogelen eguna.

2003 urterako aurrekontua 26.115 eurotakoa da. 2003ko ekainean ospatutako Hauteskundeak eta gero Euskara Batzordea desegin egin da, eta beraz, berria sortu beharko da.

GIZA BALIABIDEAK

Markina-Xemeingo Euskara Zerbitzuan langile bakarra dago: administrari laguntzaile-itzultzailea.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-zerbitzuen dimentsionamendurako azterketa egin berri du eta horren arabera, Markina-Xemein bezalako udalerrri batean euskararen normalizazioan bi langile aritu beharko lirateke, gutxienez: hizkuntza normalkuntzarako teknikari bat eta itzultzaile bat.

GLOSARIOA: erabilitako aldagaien eta kontzeptuen definizioa

HIZKUNTZA-GAITASUNA (HPS)²

Hizkuntza (euskara) zenbateraino menperatzen den ezagutzeko, oinarrizko hizkuntz trebetasunak (ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi) gurutzatzen dituen tipologia.

Euskaldunak

Gutxienez euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten dutenak.

Elebidun hartzaileak

Euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egin ez arren, “ondo” ulertu edo irakurtzen dutenak.

Erdaldun elebakarrak

Euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez duten pertsonak.

ETXEKO HIZKUNTZA

Etxean maizen hitz egiten den hizkuntza.

³ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak finkatutako sailkapena

HIZKUNTZA-BILAKAERAREN TIPOLOGIA

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolako izan den aztertzeko ama-hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren gurutzapenean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzapen horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira.

Euskaldun zaharrak

Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Jatorrizko elebidunak

Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

Partzialki erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Guztiz erdaldunduak

Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, eta “ondo” ez ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

Euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “ondo” ulertu eta hitz egiten duten pertsonak

Partzialki euskaldun berriak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz “nekez” hitz egin edo, hitz egiten ez badute, “ondo” ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

Erdaldun zaharrak

Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ez “ondo” ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak